**Udal Zigilua / Sello Ayuntamiento (1, guztira 1)**
Ayuntamiento de Lakuntza
Sinaduraren data: 18/09/2024
HASH: 38bda7409960e6470c30ee373317d140d

| **2023KO URRIAREN 19KO BILERAREN AKTA** | ***ACTA DE LA SESIÓN DEL 19 DE OCTUBRE DE 2023*** |
|---|---|
| **Organoa:** Udalbatza.<br>**Batzarra:** Ohikoa.<br>**Deialdia:** Lehenengoa.<br>**Eguna:** 2023.10.19<br>**Ordua:** 19:00.<br>**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia.<br><br>**Bertaratuak:**<br>**Alkatea:** Oihane Uribeetxebarria Garmendia<br><br>**Zinegotziak:**<br>Rita Torrico Muniz<br>Sergio Goicoetxea Bergera<br>Eba Leatxe Itoiz<br>Miriam Mendikute Garate<br>Asier Gartziandia Ormaetxea<br><br>**Bertaratu ez direnak:**<br>Patxi X. Razkin Sagastibeltza<br><br>**Idazkaria:** Maria Barkos Berruezo. | ***Órgano:*** *Pleno.*<br>***Sesión:*** *Ordinaria.*<br>***Convocatoria:*** *Primera.*<br>***Día:*** *19.10.2023*<br>***Hora:*** *19:00.*<br>***Lugar:*** *Salón de Plenos del Ayuntamiento.*<br><br>***Asistentes:***<br>***Alcaldesa:*** *Oihane Uribeetxebarria Garmendia*<br><br>***Concejales:***<br>*Rita Torrico Muniz*<br>*Sergio Goicoetxea Bergera*<br>*Eba Leatxe Itoiz*<br>*Miriam Mendikute Garate*<br>*Asier Gartziandia Ormaetxea*<br><br>***No Asisten:***<br>*Patxi X. Razkin Sagastibeltza*<br><br>***Secretaria:*** *Maria Barkos Berruezo.* |
| **Aztertu beharreko gaiak:**<br><br>**1.- Azkeneko aktaren onespena**.<br>**2.- Baso Suteen Udal Jarduera Plana onartzea.**<br>**3.- 2023ko aurrekontuaren 3. aldaketari hasierako onespena ematea.**<br>**4.- Udal Plan Orokorraren ordenantzen hasierako onespena.**<br>**5.- 2024ko lan-egutegia onartzea.**<br>**6.- Alkatearen ebazpenak**<br>**7.- Fakturak.**<br>**8.- Eskari eta Galderak.** | ***Asuntos a tratar:***<br><br>***1.- Aprobación Acta sesión anterior.***<br>***2.- Aprobación Plan de Actuación Municipal de Incendios Forestales.***<br>***3.- Aprobación inicial 3ª modificación presupuesto 2023.***<br>***4.- Aprobación inicial ordenanzas del Plan General Municipal.***<br>***5.- Aprobación calendario laboral 2024.***<br>***6.- Resoluciones Alcaldía.***<br>***7.- Facturas.***<br>***8.- Ruegos y preguntas.*** |
| **1.- AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**<br><br>Aurreko ezohiko bilkura 2023ko irailaren 28an; eta honekin batera doa bilkura honen aktaren zirriborroa.<br><br>Bilkura hastean, bilkuraren buru egiten duenak bertaratu diren korporazioko kideei galdetuko die ea oharrik egin nahi dioten | ***1.- APROBACION ACTA SESION ANTERIOR.***<br><br>*Se adjunta borrador de acta extraordinaria de la sesión anterior celebrada el 28 de septiembre de 2023.*<br><br>*Al comienzo de la sesión, quien la preside pregunta a los miembros de la Corporación que se encuentren presentes si desean* |

Baliozkotze Kod.: 4A4YREF6GFM766A56WYQARRJS
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 5

| | |
|---|---|
| deialdi honekin batera doan aktaren zirriborroari, hala ezartzen baitu Toki Entitateen Antolakuntza- eta Jarduera-Araudiko 91. artikuluarekin bat (araudi hori 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).<br><br>Hori horrela, honakoa ONARTU DA:<br><br>Lehenengoa.- 2023ko irailaren 28ko ohiko bilkurako aktak onestea.<br>Bigarrena.- Onetsitako akta Akten Liburuan transkribitzea, hala egin behar dela ezartzen baitu, bai eta nola egin behar den ere, Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 323. artikuluak. | *formular observaciones al borrador de acta que se ha adjuntado a esta convocatoria, tal y como dispone el artículo 91 del Reglamento de Organización y Funcionamiento (Real Decreto 2568/1986).*<br><br>*Visto lo anterior, SE ACUERDA:*<br><br>*Primero.- Aprobar el acta de la sesión extraordinaria del 28 de septiembre de 2023.*<br>*Segundo.- Proceder a la transcripción del acta aprobada en el Libro de Actas, de conformidad con el artículo 323 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de Administración Local de Navarra, y en el modo en que dicho precepto establece* |
| **2.- Baso Suteen Udal Jarduera Plana onartzea.**<br><br>Babes Zibilari eta Larrialdiei Aurre Egiteari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legeak 13. artikuluan ezartzen duenez, "Plan bereziek ezarriko dute, hala badagokio, zeintzuk diren Nafarroako arrisku jakin batzuen aurrean erantzuteko udal-jarduketako planak egitera eta onartzera behartuta dauden udalerriak".<br><br>Nafarroako Foru Komunitateko Baso Suteengatiko Larrialdietarako Babes Zibileko Plan Bereziak, 2022ko azaroan egindako berrikuspenean, lurraldearen zonifikazio bat ezartzen du. Lakuntza Arrisku Handiko Eremu gisa identifikatzen da, udako arriskuagatik eta neguko arriskuagatik.<br><br>Lakuntzako Udalak Lur Geroa enpresari eskatu dio jarduketa-plana idazteko.<br><br>Nafarroako Gobernuko babes zibileko eta larrialdietako zerbitzuak aldeko txostena eman dio dokumentuari.<br><br>Azaldutakoa ikusita, proiektua onartzea erabaki da. | ***2.- Aprobación Plan de Actuación Municipal de Incendios Forestales.***<br><br>*Según establece la Ley Foral 8/2005 de 1 de julio, de Protección Civil y atención de Emergencias en su artículo 13: "Los planes especiales establecerán, si procede, los municipios obligados a la elaboración y aprobación de planes de actuación municipal para responder ante determinados riesgos de Navarra".*<br><br>*El Plan Especial de Protección Civil de Emergencia por Incendios Forestales de la Comunidad Foral de Navarra en su revisión de noviembre de 2022, establece una zonificación del territorio. Lakuntza, se identifica como Zona de Alto Riesgo por riesgo de verano y riesgo de invierno.*<br><br>*El Ayuntamiento de Lakuntza ha encargado la redacción del plan de actuación a la empresa Lur Geroa.*<br><br>*El servicio de Protección Civil y Emergencias del Gobierno de Navarra ha informado favorablemente el documento.*<br><br>*A la vista de lo expuesto, se acuerda aprobar el proyecto* |

Baliozkotze Kod.: 4A4YREF6GFM766A56WYQARRJS
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 5

| | |
|---|---|
| **3.- 2023ko aurrekontuaren 3. aldaketari hasierako onespena ematea.** | ***3.- Aprobación inicial 3ª modificación presupuesto 2023.*** |
| Aurkeztutako 2023ko aurrekontuak aldatzeko 3. proposamena ikusita, onartzea erabaki da. | *Vista la propuesta de 3era modificación de los presupuestos 2023 presentada, se acuerda su aprobación.* |
| Kreditu-gehigarriaren aldaketa, guztira, 56.806 eurokoa da. | *El total de la modificación de suplemento de crédito asciende a 56.806 euros.* |
| Aurrekontua aldatzeko espedientea Osoko Bilkurak onartzea eta, esku hartzeko eragozpenik ez dagoenez, erabakia hartzen den unetik aurrera jarriko da indarrean. | *La aprobación por el Pleno del expediente de modificación presupuestaria, al no existir reparo de intervención, entrará en vigor desde el momento de la adopción del acuerdo.* |
| **4.- Udal Plan Orokorraren ordenantzen aldaketaren hasierako onespena.** | ***4.- Aprobación inicial modificación ordenanzas del Plan General Municipal.*** |
| S2 eta S4 sektoreen eremuen eraikuntza-ordenantza aldatzea proposatzen da; fatxadako materialetarako, baoei dagokien zatian, aukera gehiago emanez eta ez S1 sektorean bezain murriztailea. | *Se propone la modificación de la ordenanza de edificación para el Sector S2 y S4; al material de fachada en la parte correspondiente a los huecos, ampliando posibilidades y no tan restrictivo como en el Sector S1.* |
| Honako hau erabaki da: | *Se acuerda:* |
| 1.- Hasierako onespena ematea S2 eta S4 sektoreetako eraikuntza-ordenantzaren aldaketa puntualari. | *1.- Aprobar inicialmente la modificación puntual de la ordenanza de edificación en el ámbito de los sectores S2 y S4.* |
| 2.- Onetsitako aldaketa jendaurrean egonen da hogeita hamar egun, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea azter dezaten eta erreklamazioak, kexak edo oharrak aurkez ditzaten; hori guztia, bat etorriz uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325 artikuluarekin (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea). | *2.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, la modificación aprobada se somete a información pública durante treinta días, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, para que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones.* |
| Jendaurreko aldia iragaten bada inork alegaziorik aurkeztu gabe, ordenantza fiskala behin betiko onetsirik geldituko da, eta haren testua osorik emanen da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean. | *Si transcurrido el periodo de exposición pública no se formularan alegaciones, la Ordenanza fiscal quedará definitivamente aprobada, procediéndose a la publicación de su texto íntegro en el Boletín Oficial de Navarra.* |

Baliozkotze Kod.: 4A4YREF6GFM766A56WYQARRJS
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 5

| | |
|---|---|
| **5.- 2024ko lan-egutegia onartzea.** | ***5.- Aprobación calendario laboral 2024.*** |
| Ikusi da Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 250/2023 Ebazpena, zeinaren bidez eza rtzen baitaNafarroako Foru Komunitatearen esparruan ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren 2024ko jaiegunen egutegi ofiziala (2023ko 132. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, ekainaren 23koa). | *Vista la Resolución 250/2023, de 5 de junio, de la directora general de Política de Empresa, Proyección Internacional y Trabajo, se establece el calendario oficial de fiestas laborales para el año 2024 con carácter retribuido y no recuperable en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra (Boletín Oficial de Navarra número 132, de 23 de junio de 2023).* |
| Ikusi da Lakuntzako tokiko jaieguna 2024rako urtarrilako 20a izanen dela (San Saastin); egun hori ordaindu eginen da baina ez da errekuperatu beharko. | *Considerando que se determina la fiesta local para el año 2024 con carácter retribuido y no recuperable en el ámbito de Lakuntza el 20 de enero (San Sebastián).* |
| Bat etorriz abenduaren 26ko 26/2012 Foru Legearen 4. artikuluan xedatutakoarekin (foru-lege horren bidez aldatu zen 13/2012 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa), ezartzen baitu Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen urteko benetako lanordu kopurua 1592 izanen dela. | *De conformidad con lo establecido en el artículo 4 de la Ley Foral 26/2012, de 26 de diciembre, por la que se modifica la Ley Foral 13/2012, de 21 de junio, de medidas urgentes en materia de personal al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra que establece para los funcionarios de las Administraciones Públicas de Navarra una jornada laboral que, en cómputo anual, queda determinada en 1592 horas efectivas de trabajo.* |
| Lehena.–Egun baliogabeak izanen dira, 2024. urtean epeak zenbatzeari dagokionez, jarraian adierazitako hauek, jaiegun deklaratu baitira: | *Primero.– Declarar como inhábiles a efectos del cómputo de plazos en el año 2024 los días declarados festivos que se señalan a continuación:* |
| –Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.<br>–Urtarrilaren 6a: Errege eguna.<br>–Urtarrilaren 20a: San Saastin<br>–Martxoaren 28a: Ostegun Santua.<br>–Martxoaren 29: Ostiral Santua.<br>–Apirilaren 1a: Pazko astelehena.<br>–Maiatzaren 1a: Langileen eguna.<br>–Uztailaren 25a: Santiago apostolua.<br>–Abuztuaren 15a: Andre Mariaren Jasokundea.<br>–Urriaren 12a: Pilar Ama B.<br>–Azaroaren 1a: Santu Guztien Eguna.<br>–Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierkoa<br>–Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna<br>–Abenduaren 25a: Eguberri eguna. | *• 1 de enero: Año Nuevo.*<br>*• 6 de enero: Epifanía del Señor*<br>*• 20 de enero: San Saastin*<br>*• 28 de marzo: Jueves Santo.*<br>*• 29 de marzo: Viernes Santo.*<br>*• 1 de abril: Lunes de Pascua.*<br>*• 1 de mayo: Fiesta del Trabajo.*<br>*• 25 de julio: Santiago Apóstol.*<br>*• 15 de agosto: Asunción de la Virgen.*<br>*• 12 de octubre: El Pilar.*<br>*• 1 de noviembre: Día de todos los Santos.*<br>*• 3 de diciembre: San Francisco Javier.*<br>*• 6 de diciembre: Día de la Constitución.*<br>*• 25 de diciembre: Natividad del Señor.* |
| Bigarrena.– Onestea Lakuntzako Udalaren zerbitzuko langileek 2024an izanen duten aste barreneko jaiegunen egutegia, hementxe zehaztu bezala: | *Segundo.– Aprobar el calendario de días festivos entre semana durante el año 2024 para el personal del Ayuntamiento de Lakuntza, tal como se detalla a continuación:* |

Baliozkotze Kod.: 4A4YREF6GFM766A56WYQARRJS
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 5

| | |
|---|---|
| –Abuztuan: 24tik 27ra (herriko jaiak).<br><br>–Langile bakoitzak 5 egun aukeratuko ditu.<br><br>Hirugarrena.–Lanaldiaren urteko egiazko lanordu kopurua 1.592 ordukoa da zerbitzu orokorretako langileentzat, bat etorriz abenduaren 26ko 26/2012 Foru Legearekin eta abenduaren 27ko 624/1999 Foru Dekretuarekin.<br><br>Laugarrena.– Udal bulegoetan, jendearendako ordutegia izanen da 10:00etik 14:00ak arte, astelehenetik ostiralera.<br><br>Bosgarrena.– Erabaki hau langileen ordezkariei helaraztea, eta argitara ematea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, orok jakin dezan.<br><br>Seigarrena.–Egutegi hau, lanaldiaren banaketa eta gainerako xedapenak ez zaizkie aplikatuko lan-baldintzak direla-eta berariazko lan-egutegia daukaten udal zerbitzuei. | *• Agosto: días 24 al 27 de agosto (fiestas).*<br><br>*• 5 días a elegir por cada trabajador.*<br><br>*Tercero.–La distribución del cómputo anual de la jornada de trabajo del personal de servicios generales se establece en 1.592 horas efectivas de trabajo, conforme a la Ley Foral 26/2012, de 26 de diciembre y el Decreto Foral 624/1999, de 27 de diciembre.*<br><br>*Cuarto.– El horario de atención al público en las oficinas municipales será de las 10:00 a las 14:00 horas de lunes a viernes.*<br><br>*Quinto.– Trasladar la presente resolución a los delegados del personal y publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra para su general conocimiento.*<br><br>*Sexto.– El presente calendario, su distribución de jornada y resto de condiciones no se aplica a aquellos servicios del Ayuntamiento que cuenten con un calendario laboral específico debido a sus condiciones de trabajo.* |
| **6.- Alkatearen ebazpenak**<br><br>Toki Entitateen Antolakuntza- eta Jarduera-Araudiko 42. artikuluarekin bat (araudi hori 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen), Osoko Bilkurari ondoko ebazpenen berri ematen zaio: 2023/47. ebazpenetik, uztailaren 27koa, 2023/62. ebazpenera, irailaren 25ekoa; bitartekoak, biak barne. | ***6.- Resoluciones Alcaldía.***<br><br>*De conformidad con lo dispuesto en el artículo 42 del Reglamento de Organización y funcionamiento (Real Decreto 2568/1986), se da cuenta al pleno de las siguientes resoluciones dictadas por alcaldía: desde la resolución nº 2023/63, de27 de septiembre; a la resolución nº 2023/65 de 2 de octubre; ambas incluidas.* |
| **7.- Fakturak.**<br><br>Urrian jaso diren fakturen zerrenda onartu da.<br>Guztira 18.289,22 euro izan da. | ***7.- Facturas.***<br><br>*Se aprueba la relación de facturas recibidas el mes de octubre. Asciende a 18.289,22 euros.* |
| **8.- Eskari eta Galderak.**<br><br>Ez dira egin<br><br>Eta besterik gabe, 14:25ean, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatua; eta Alkateak sinatua | ***8.- Ruegos y preguntas.***<br><br>*No se formulan*<br><br>*Y no habiendo más asuntos que tratar y siendo las 19:45 horas se levanta la sesión de la que se extiende la presente acta que conforme la firma la Alcaldesa y la Secretaria, que lo certifica* |

Baliozkotze Kod.: 4A4YREF6GFM766A56WYQARRJS
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 5